

GU ERE OLERKARI: POESIA ERREZITALDIA PRESTATZEN



HIZKUNTZA ARLOA
Lehen Hezkuntzako 2. maila

Juan José Gascón
2011ko ekainean berrikusia

GU ERE OLERKARI: POESIA-ERREZITALDIA PRESTATZEN

Sekuentziak arlo hauek hartzen ditu barnean: Hizkuntza eta Arte Hezkuntza

Gaia: Deklamazioa

Maila: LHko 2. maila

Saio kopurua: 8-9

Proposamenaren testuingurua: Udaberrirako, poesia-errezitaldia prestatu behar da, bai ikasleek eurek sortutako olerkiekin, bai olerkari ospetsuek idatzitakoekin.

Oinarrizko gaitasun hauek lantzen dira:

- ✓ Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (1. eta 2. jarduerak)
- ✓ Giza eta arte-kulturarako gaitasuna (3., 4., 5., 6. eta 7. jarduerak)
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna (8. eta 9. jarduerak)
- ✓ Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna (8. eta 9. jarduerak)

Helburu didaktikoak:

- ✓ Poesiaren zenbait ezaugarri bereizgarri antzematea.
- ✓ Jendaurrean deklamatzeko prozedura egokiaz jabetu eta berori praktikan jartzea.
- ✓ Nork bere olerkiak sortzea (zenbait eredurri jarraituta).
- ✓ Poesiaz gozatzea.
- ✓ Zenbait olerkari ezagunen olerkiak buruz ikastea.

Edukiak:

- ✓ Poesiaren ezaugarriak
- ✓ Deklamatzeko prozedura
- ✓ Testu literarioen balioespena giza eta kultura-ekoizpen bezala
- ✓ Olerkiak sortzeko estrategiak
- ✓ Testu ezagunak berridazteko trikimailuak
- ✓ Olerkiak errezitatzeko teknika

Jardueren sekuentzia:

- a) Planifikatzea
 1. Zer dakigu poesiari buruz?
 2. Olerki bat aztertzen.
 3. Olerki-antologia bat osatzen.
- b) Gauzatzea
 4. Zenbait teknikatan trebatzen (I): errimak.
 5. Zenbait teknikatan trebatzen (II): akrostikoak.
 6. Zenbait teknikatan trebatzen (III): errepikapenak.
 7. Zenbait teknikatan trebatzen (IV): hitzekin jolasten.

c) Erabiltzea

8. Errezitaldia prestatzen.
9. Errezitaldia egiten.

Ebaluazio-irizpideak:

Adierazleak:

1. Ea poesia generoaren zenbait ezaugarri bereizgarri antzematen dituen.
2. Ea jendaurrean deklamatzeko prozedura egokiaz jabetzen den eta berori praktikan jartzen duen.
3. Ea idazle jakin bat(zu)k imitatuz olerkiak sortzen dituen.
4. Ea poesiaz gozaten duen.
5. Ea zenbait olerkari ezagunen olerkiak buruz ikasten dituen.

Tresnak:

- ✓ Sekuentzian hauexek proposatzen dira:
 - Behaketa-taula (I) (1. eta 2. jardueretan, 1. adierazlea)
 - Behaketa-taula (II) (3., 4., 5., 6. eta 7. jardueretan, 3. eta 4. adierazleak)
 - Kontrol-zerrenda (8. eta 9. jardueretan, 2. eta 5. adierazleak)
- ✓ Irakasleak erabiliko dituen beste batzuk (behaketa...)

GU ERE OLERKARI: POESIA-ERREZITALDIA PRESTATZEN


1. JARDUERA. Zer dakigu poesiari buruz?

Zer da poesia? Irakurri al duzue inoiz poesiarik? Eta asmatu? Zaila iruditzen al zaizue? Lan hau amaitutakoan, konturatuko zarete gai zaretela poesia irakurtzeko eta olerkiak asmatzeko. Beraz, zuek ere poetak izango zarete! Polita eta handia da gure egitasmoa, ezta? Alabaina, nolatan lortuko duzue zuen irudimenari ateak irekitzea? Non dago giltza?

Proiektu xume honetan, zenbait olerkari ospetsuren lanaz gozatu, eta haiek erabilitako zenbait trikimailu ikasiko dituzue. Harrituta geratuko zarete konturatzen zaretenean zuek ere sormen handia duzuela eta olerkigintza plazer-iturri izugarria izan daitekeela.

Beraz, gozatzea helburu, has gaitzen ibilbide hau egiten poesiaren mundu zirrargarria deskubritze aldera...

Irakurri arretaz igarkizun hau:



Asma
 tu al duzue? Ez??? Erreparatu, arreta handiz, azkenurreko lerroan emandako arrastoari, eta egin horrek esaten duena. Oraingoan bai, ezta?

Bikotekidearekin hitz egin ondoren, komentatu irakaslearekin talde handian, eta adostu zein diren, zuen ustez, poesiaren ezaugarriak.

POESIAREN EZAUGARRIAK

-
-
-
-
-

Zer egingo duzue?

Lanean hasi baino lehen, kontutxo bat esan behar dizuet: egin beharreko lana ez da izango bakarrik poesiaz gozatzea eta poesia ikastea. Olerkiak idaztean olerkariak erabiltzen dituzten zenbait trikimailu aztertu eta ikasi beharko dituzue. Zer deritzozue zuek ikasitako eta asmatutako olerkiez baliatuta udaberriko jaialdirako poesia-errezitaldi bat prestatzeari? Modu horretan, zuetaz gain, ikastetxeko gainerako ikasleek ere poesiaz gozatzeko aukera izango dute. Ikus dezagun nola.

Nola egingo duzue? Zertarako? Nola ebaluatuko da zuen lana?

- Hasieran, binaka jarriko zarete, eta olerkiak aukeratu, irakurri, aztertu, berridatzi, sortu eta buruz ikasiko dituzue.
- Gero, talde handian olerki-antologia bat egiten hasiko zarete, irakaslearen eta zeuen artean aukeratutako testuekin.
- Geroago, talde handian zenbait olerki aztertuko dituzue, olerkariak erabilitako hainbat trikimailu ikasi, eta olerki horien zenbait aldaera idatziko dituzue. Guzti-guztiak ikaskideen aurrean ahoz gora irakurriko dituzue, eta antologian sartuz joango zarete.
- Amaieran, talde handian adostutako irizpideen arabera sailkatuko dituzue antologiako olerki guztiak (urtaroka, gaika, olerki bakoitzaren aldaerak, alfabetikoki...), eta, horretan oinarrituta, emanaldirako egitaraua prestatuko.
- Gelan, entsegu orokorra egingo duzue: ondo baino hobeto landuko duzue olerkiak nola deklamatu behar diren, errezitaldiaren egunean den-dena primeran atera dadin.

Nork ebaluatuko du zuen lana?

Erraza da erantzutea: zeuok eta irakasleak. Zuek emanaldia balioetsiko duzue. Irakasleak, berriz, olerkiak buruz ondo ikasi eta deklamatu dituzuen aztertuko du.

2. JARDUERA. Olerki bat aztertzen.

A zer-nolako nahigabea!!! Juan Kruz Igerabide idazle ospetsuaren olerki baten zatiak lurrera erori zaizkigu, eta, orain, ez dakigu nola ordenatu.

Ausartuko al zinatekete zuek ordenatzen? Ea zelan geratzen den... Konparatu zuen ikaskideen bertsiokin, eta, idazlearen zer liburutan agertzen den topatuz gero, idazlearen jatorrizko testuarekin!



Bideak izar artean,
zeru zabala batean.

Zintzilika jartzen dira
sorginak arin joateko.

Haietan ibiltzen dira
sorginak erratz batean.

Izarren arteko bideak

Haietan jolasten dira
sorginak, denak batera.

Bideak izar arteko,
zeru zabala tarreko.



Bideak izar arrera,
zeru zabala jauzitera.



IRAKURRI BAINO LEHEN

- Begiratu marrazkiei. Zer dira? Zer dakizue haiei buruz?

- Erreparatu letra lodiz idatzita dagoen lerroari. Zergatik ote dago letra lodiz idatzita?

- Irakurri lerro hori. Zeri buruzkoa da olerkia, zuen ustez?

IRAKURRI BITARTEAN

- Zein dira zati bakoitzaren hasierako hitzak?

- Zer hitz jar liteke "haietan" hitzaren ordezt?

- Zer jartzen da zintzilika?

- Azpimarratu, beste kolore batez, zati bakoitzaren bukaeran dagoen hitzaren amaierako bi silabak. Zerbait bitxia sumatzen duzue? Zer?

IRAKURRI ONDOREN

- Ordenatu olerkiaren zati guztiak, eta kolatu orri zuri batean; gero, irakurri talde handian, ahoz gora .
- Talde handian sortutako bertsoak irakurri ostean, entzun irakasleak irakurriko dizuen jatorrizko bertsoa, eta konparatu zeuek egindakoekin. Arretaz entzun irakasleari, eta komentatu talde handian.
- Zuek bezalaxe irakurri du irakasleak olerkia? Zer alde antzeman duzue irakurtzean?
- Modu jakin batean irakurri behar dira olerkiak, edo ipuinak bezalaxe irakurtzen dira?
- Zer alde dago zuen olerkien eta jatorrizkoaren artean?
- Ontzat emango al lituzke idazleak zuen bertsoak, entzungo balitu? Zergatik uste duzue hori?
- Argi dago zatien ordena aldatuta ere olerkiaren mezua arazorik gabe ulertzen dena; gauza bera gertatuko litzateke ipuin batean zatien ordena aldatuko bagenu? Zergatik?
- Zertarako dira olerkiak?
- Zeuok sortutako olerkiak eta jatorrizkoa hartuta, horma-irudi bat egingo duzue; erabili marrazki politak apaintzeko, eta , gero, jarri gelan. Dagoeneko badituzue zenbait olerki antologia egiten hasteko!!! Hasi baino ez zarete egin, eta jada olerkari trebeak zarete!!! Animo eta segi aurrera!!!

3. JARDUERA. Olerki-antologia

Bai eskolako liburutegian, bai eskolatik kanpo (etxean, udal liburutegian...) bildutako olerkiekin, bai irakasleak gelara eramandakoekin antologia bat osatuko duzue denon artean. Ziurtatu olerki guztietan ageri dela idazlearen izena.

4. JARDUERA. Zenbait teknikan trebatzen (I): errimak
 Hona olerki bitxi bat... Fenomeno arrunt bati buruzkoa da.

Oihartzuna

Leize batera sarturik,
 beldurraren beldurrez,
 galdetu nuen oihuka
 barruan inor zenez.

... Eta oihartzunak,
 ozenki,
 ihardetsi zidan:
 eZZZZZZZZZZ...

IRAKURRI BAINO LEHEN

- Zer izenburu du?

- Zeri buruzkoa da olerkia, zuen ustez?

- Non sortzen da oihartzuna?

- Zer gertatzen da oihartzuna sortzen den lekuan?

- Erreparatu olerkiko azken hitzari. Zergatik da berezia?

- Zergatik uste duzue dela desberdina hitz horren hizkien tamaina?

IRAKURRI BITARTEAN

- Non sortzen da oihartzuna, olerkian?

- Zer hitz erabiltzen du poetak leku hori izendatzeko?

- Zer da leizea? Ezagutzen al duzue beste hitzen bat hori izendatzeko? Zein?

- Zer egin zuen oihartzunak? Zer hitz erabiltzen du olerkariak hori adierazteko?

- Ba al dakizue beste hitzen bat oihartzunak egin zuena adierazteko? Zein?

- Konturatuko zineten olerkiak bi zati dituela. Azpimarratu zati bakoitzaren azken hitza. Nola amaitzen dira bi hitz horiek ? Azpimarratu olerkian berdin bukatzen diren hitzak.

- Badakizue zer izen daukaten olerki batean bukaera berdina duten hitzek?


IRAKURRI ONDOREN

- Zeri buruzkoa da olerkia? Bat dator zuek hasieran pentsatutakoarekin?
-

- Zer galdetu zuen leizean sartu zen pertsonak?
-

- Zer erantzun zuen oihartzunak?
-

- Zuen txanda da, orain! Sortu ezazue olerkitxo bat leizean egindako galdera eta oihartzunak emandako erantzuna aldatuz. Hori bai, gogoratu amaieran errimadun hitzak erabili behar dituzuela, hau da, bukaera berdina duten hitzak asmatu behar dituzuela. Animo!!! A... eta erabili marrazki politak olerkia apaintzeko!!!



5. JARDUERA. Zenbait teknikan trebatzen (II): akrostikoak.
Hona beste olerki bat. Ea zer moduz moldatzen zareten!



IRAKURRI BAINO LEHEN

- Begiratu marrazkiari. Zer ikusten duzue?

- Zer urtarotan jaiotzen dira bertan agertzen diren animaliak?

- Zeri buruzkoa da, zuen ustez, olerkia?

- Ezer arrarorik sumatzen al duzue hitzetan? Zer?

-
- Nola idazten dituzue hitzak esaldi bat idazten duzuenean: elkarren azpian edo bata bestearen atzean, lerroa amaitu arte?
-

- Olerki honetan, hitzak bata bestearen atzean daude idatzita? Nola daude idatzita?
-
-

- Noiz erabiltzen duzue, normalean, letra larria?
-
-

- Non erabili da letra larria olerki honetan?
-

- Zergatik uste duzue erabili dela horrela letra larria?
-
-

- Irakurri goitik behera letra larriz idatzitakoa. Zer jartzen du?
-

- Bat al dator lehen uste izan duzuenarekin? (3. galderaren erantzuna)
-

- Ez badator bat, zeri buruzkoa da, zuen ustez, olerkia?
-

IRAKURRI BITARTEAN

- Zergatik aipatzen da *negua*?
-
-

- Idatzi zuen ustez urtaro horretan zer gertatzen den ondoen azaltzen duten hiru hitz.
-
-


IRAKURRI ONDOREN

- Ba al du zerikusirik goitik behera irakurtzen den hitzaren esanahiak olerkiak kontatzen duenarekin? Zertan?

- Zein da, beraz, olerkiaren gaia? Bat al dator zuek pentsatutakoarekin?


- Zein trikimailu erabili du olerkariak zuek kontura zaitezten zeri buruzkoa den olerkia?

- Zuen txanda da, orain! Aukeratu hitz bat, eta saiatu antzeko olerki bat egiten. Nahi baduzue, olerkariak erabilitako hitz berbera aukeratu dezakezue. Hori bai, beste zerbait kontatu behar duzue udaberriari buruz. Animo!!! A... eta ez ahaztu marrazki politak erabiltzea olerkia apaintzeko!!!



6. JARDUERA. Zenbait teknikan trebatzen (III): errepikapenak.

Hona beste olerkitxo bat... Gozatu ezazue!!!



IRAKURRI BAINO LEHEN

- Begiratu marrazkiei. Zer ikusten duzue?

- Zer izenburu du?

- Zeri buruzkoa da olerkia, zuen ustez?

IRAKURRI BITARTEAN

- Zer ulertzen duzue lehenengo hiru hitzak irakurrita? Zer kontatzen da?

- Gehituko al zenukete hitzen bat kontatzen dena hobeto azaltzeko? Zer hitz?

- Irakurri hirunan-hirunan olerkiaren gainerako hitz guztiak . Jarduera berbera deskribatzen da kasu guztietan? Zein?

- Azpimarratu olerkian errepikatzen diren hitzak, eta erabili kolore desberdinak hitzok bereizteko.

- Ezer aldatzen da errepikatutako hitzetan? Zer? Markatu beste kolore batez.


IRAKURRI ONDOREN

- Zeri buruzkoa da olerkia?

- Zein da olerkiaren gaia? Bat al dator lehenengoz irakurri duzuenean uste izan duzuenarekin?

- Nola lortu du idazleak olerkiari erritmoa ematea?

- Zuen txanda da, orain! Saiatu antzeko olerki bat egiten antzeko errepikapenak erabiliz. Nahi baduzue, olerkariak aukeratutako jarduera berberari buruz egin dezakezue. Hori bai, beste gai bat hartu behar duzue. Animo!!! A... eta ez ahaztu marrazki politak erabiltzea olerkia apaintzeko!!!



7. JARDUERA. Zenbait teknikan trebatzen (IV): hitzekin jolasten.

Hona azken olerkia... Gozatu ezazue!!!

Eguzki-lorea

Eguna argitu baino lehen
basoko eguzki-lorea banatu egiten da:
zerura joaten da eguzkia,
lorea lorategira.

Gero, eguna argitzen du.

Arrats beheran,
bertiz biltzen dira basora
eguzkia eta lorea,
lorea eta eguzkia,
besarkada batean,
besarkada berean.

Musu ere egiten diote elkarri,
ezpainenan.



IRAKURRI BAINO LEHEN

- Zer izenburu du?

- Zeri buruzkoa da olerkia, zuen ustez?

- Nondik zatituko zenukete izenburuko hitza, zentzu osoa duten bi hitz lortzeko?
Zer bi hitz sortzen dira?

IRAKURRI BITARTEAN

- Olerkian agertzen dira zuek aipatutako hitzak? Zer lerrotan? Azpimarratu olerkian.
- Ba al dute zerikusirik azpimarratutako hitz horiek izenburuko hitzarekin?
Zertan?

IRAKURRI ONDOREN


- Noiz esaten du olerkariak banatzen dela eguzki-lorea?

- Zertan da banaketa hori? Zer hitz erabiltzen ditu olerkariak banaketa hori adierazteko?

- Noiz elkartzen dira berriro? Zer hitz erabiltzen ditu hori adierazteko?

- Izenburuak aipatzen duen gaiari buruzkoa da olerkia? Bat al dator zuek uste izan duzuenarekin?

- Zuen txanda da, orain! Pentsatu bi hitzez osatutako hitz bat. Hitz horrek hitz bitan banatzeko modukoa izan behar du (haize-orratza, sudurzuloa, katebegia, zainzuria...). Gero, kontatu zelan gauzatzen den bien arteko banaketa, olerkariak egin duen eran. Animo!!! A... eta ez ahaztu marrazki politak erabiltzea olerkia apaintzeko!!!




8. JARDUERA. Errezitaldia prestatzen

Dagoeneko, olerki polit asko landu duzue, zenbait olerkari ospetsuren trikimailu batzuk ikasi dituzue, landutako olerkien zenbait aldaera sortzeko erabili dituzue, eta, hori guztia eginez, gozatu egin duzue... Ziurrenik, olerki-antologia bete-betea izango duzue honezkero! Hortaz, errezitaldia prestatzen hasteko mementoa iritsi da!!!

- Lehendabizi, antologiako olerkiak sailkatuko dituzue. Hori egiteko, irizpideak adostu beharko dituzue aldez aurretik, irakaslearen laguntzaz (alfabetikoki, egileka, egile berberaren aldaerak multzokatuz...).
- Jarraian, bikoteen artean banatuko dituzue olerkiak, buruz ikasteko.
- Gero, errezitaldiaren egitaraua prestatuko duzue, eta erabakiko duzue bikoteek zer ordenatan errezitatuko dituzten olerkiak.
- Amaitzeko, entsegua egingo duzue gelan. Erabili kontrol-zerrenda hau ikaskideen emanaldiari buruzko iritzia emateko.

IZENA:	BAI	ERDIZKA	EZ	HOBETU BEHARREKOA
Ondo ikasi du buruz.				
Erritmo egokian errezitatu du hasieratik bukaerara.				
Tonu egokia erabili du hasieratik bukaerara.				



9. JARDUERA. Errezitaldia egiten

Iritsi da eguna! Orain, prest zaudete udaberriko jaialdia ikasle, irakasle eta gurasoen aurrean egiteko. Zorte on!!!

